

TAILERRAK

2026-2027

IKASTURTEA

GETXO⁺
KULTURA



Getxo
bizi ezazu

TAILERRAK

2026-2027 IKASTURTEA

DATA GARRANTZITSUAK

Aurretiko izen-ematea

- **Epea:** irailaren 2tik 14ra.
- **Plazen-zozketa:** irailaren 16an.
- **Plazari uko egitea:** irailaren 17tik 22ra.
- Urtean zehar, tailerretan izena emateko aukera izango da plaza libreak dituzten tailerretan. Plaza liberetik izango ez balitz, itxaron zerrendan apuntatzeko aukera izango da.

Matrikularen kobrantza

- **Lehen zatia (erdia):** tailerren hasiera eguna baino lehen.
- **Bigarren zatia:** urtarrilaren lehenengo hamabostaldia (bajan emateko eta, hala, kuotaren bigarren erdia ez ordaintzeko azken eguna: abenduaren 17a).

Ikasturtea

- **Hasiera:** urriaren 1eko astea.
- **Gabonetako oporrak:** abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra.
- **Aste Santuko oporrak:** martxoaren 22tik apirilaren 4ra.
- **Amaiera:** ekainean zehar (kontsultatu tailer bakoitzaren bukaera data).

DATU GARRANTZITSUAK

- **Bete** eskaera era argian eta entregatu baino lehen ziurtatu zaitez **sinatuta** dagoela.
- Kobrantza goian aipatutako datetan egingo da banku helbideratzearen bidez. Hortaz, beharrezkoa da kontu korrontearen zenbakia adieraztea (IBAN zenbakia barne) eta eskabidean adierazitako **datu guztiak** betetzea. **Behin kobrantza eginda, ez da itzulketarik egingo.**
- Pertsona bakoitzak, gehienez ere, **bi tailerretan eman dezake izena.**

Mesedez, irakur ezazu informazio guztia.

- Tailerren **plaza** kopurua **mugatu**a denez, plazen esleipena **zozketa** bidez egingo da.
- Getxon erroldatutakoek **lehenetasuna** izango dute.
- Eskaera orrian zure **posta elektronikoko** helbidea adierazi baduzu, zozketa publikoaren egunean bertan helaraziko dizugu emaitza zure posta elektronikora. Horrenbestez, garrantzitsua da eskabidean posta elektronikoko helbidea adieraztea. **Helbide elektronikorik** izango ez bazenu, Romo edo Algortako Kultur Etxeetan izango duzu zozketaren berri izateko aukera.

- Zozketan plaza bat eskuratu eta erabiltzeko asmorik izango ez bazenu **6 eguneko epea izango duzu (irailaren 17tik 22ra)** plaza horri **uko egiteko**. Bestela, plaza erabiltzeko asmoa duzula ulertuko dugu, eta tailerrari dagokion **lehen ordainketa abiatuko dugu**.
- Plazak pertsonalak eta besterenezinak dira.
- Tailerrak 9 hilabetetan zehar egingo dira (2026ko urritik 2027ko ekainera bitartean) eta bi zatitan kobratuko dira. Zati bakoitza kobratu ondoren, ez da inolako itzulketarik egingo, baldin eta Getxo Kulturak tailerra behin betiko bertan behera uzten badu.
- Ikastarorako beharrezko materialak ez daude matrikula-prezioaren barne. Ikasle bakoitza arduratuko da horiek ekartzeaz.
- Euskarazko ikastaroetan izena emateko, hizkuntza menperatu behar da.

NON ESKATU INFORMAZIOA

- Romoko Kultur Etxean edota 94 466 00 22 telefonora deituta.
- Muxikebarriko informazio bulegoan edota 944 66 01 23 telefonora deituta.
- Getxo Kulturako webgunean:
<https://getxo-kultura.eus/agenda/ikasturteko-tailerrak/>



NON ENTREGATU ESKAERAK

- **Romoko Kultur Etxean** (Santa Eugenia plaza, 1).
Astelehenetik ostiralera, ondorengo ordutegian: 09:00-14:00/16:00-18:00.
- **Muxikebarriko arretarako bulegoan** (Basagoiti Etorbidea, 77).
Astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30etara.
- **Algortako** (Torrene 3) **eta Areetako** (Las Mercedes 13) **Herritarrentzako Arreta Bulegoetan** (Getxo Kulturari zuzendutako erregistro elektronikoa bidez).
Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara.
- **Udal Administrazio Elektronikoko bulegoaren bitartez**
[\(https://eudala.getxo.eus/\)](https://eudala.getxo.eus/)



Nola?

Webgunean sartu ondoren, identifikatu behar zara. Ezkerreko menu bertikalean Getxo Kultura > Cursos-Talleres > Zozketetarako aurreinskripzioak.

Plataforman sartzeko ziurtagiri digitala (NAN elektronikoa edo IZENPE) www.izenpe.eus edo itsasontzi-jokoa (B@KQ) beharko duzu. Ez badaukazu B@KQrik, irailaren 1etik aurrera eskatu dezakezu Algortako (Algortako etorbidea, 98 - Tangora Etxea) edota Romoko (Santa Eugenia plaza, 1 - RKE) KZguneko bulegoetan.

Eta azkenik...

Mesedez, izan eskuzabal itxaron zerrendan geratu diren herritarrekin; ikastarora joateari utziko badiozu, jakinarazi iezaguzu ahal bezain pronto, plaza beste pertsona bati eskaini diezaiozun Eskerrik asko.

LARRUZKO ARTISAUTZA

Irakaslea: Julia López Muriel

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astelehenak:

10:00-12:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Tailer honetan larrugintzako teknikak irakatsiko dira: larrugintza, talabarberia, larrukigintza, osagarrien diseinua, zaharberritzea eta beste artisautza batzuk. Bozelketa, trokelaketa, tartekia, inkrustazioa, kolorazioa, pirograbatzea, akaberak eta askotariko teknikak, gure sormena garatzea, dekorazio-objektuak ez ezik erabilera utilitario ugari egitea ere ahalbidetuko digutenak. Balio handiko objektu originalak eta pertsonalizatuak lortuko ditugu.

Denborarekin hondatutako larruzko objektuak kontserbatzen eta zaharberritzen ere ikasiko dugu.

Era berean, makina bat txirikordatu ezagutzeko eta praktikatzeko eskuliburu bat emango da, poltsetako josturetan, zorroetan eta abarretan aplikatzeko edo edozein objektutan apaingarri gisa erabiltzeko.

LARRUZKO SORKUNTZA

Irakaslea: Julia López Muriel

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Astearteak:

10:00-12:00

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Tailer honek partehartzaileak “larruzko” materialera hurbildu nahi ditu, material noblea, harikorra, askotariko formetara egokitzeko gai dena eta erabilera anitzekoa. Halaber, larruak aukera desberdinak ematen dizkigu, askotariko formetan modelatu ahal izateko.

Larru motak eta horien zurratze motak bereizten ikasiko dugu. Era berean, larruaren berezko teknika guztiak irakatsiko dira.

Teknika desberdinak erabiltzen jakiteak objektu ugari sortzeko aukera emango digu, hala nola belarritakoak, paparrekoak, lepokoak, poltsak eta era guztietako osagarriak, larruarekin nahastuta pieza bakar eta pertsonalizatuak lortzen dituzten harriak, sokak, hariak eta abar.

Objektuei edo jantziei bigarren aukera bat emateko aukeraz gozatuko dugu. Gauzak horrela, larrua berrerabiltzea, zaharberritzea eta mantentzea ere oso garrantzitsua da tailer honetan.

LARRUZKO ARTEA

Irakaslea: Julia López Muriel

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Ostegunak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 1

Amaiera: ekainak 3

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Ikastaro honen bidez, larruaren artea eta lanbide artistikoak hurbilduko ditugu, eta larru motak eta berezko teknikak bereizten ikasiko dugu ere. Larrua euskarri artistiko gisa lantzeak askotariko objektuak sortzeko aukera ematen du, sormena garatuz: osagarriak, dekorazio-artikuluak, bitxiak, etab. Partehartzaileek objektu bakoitzean beren estilo propioa islatuko dute trebetasunez.

Piezak eskuz egiten dira beti, eta, hala badagokio, eskuz egindako josturak eta txirikordatze apaingarriak erabiltzen dira. Larruarekin material osagarriak konbinatu daitezke beti, hala nola, harriak, oihalak, etab. Gauzak horrela, proiektu eta gauzatze bakoitzean aukera ugari sortzen dira.

Larruzko arteari buruzko ikastaro honetan, lodiera handiagoko edo txikiagoko larruak erabiliko ditugu modelatzeko, eta balio artistiko handiko piezak sortuko ditugu. Objektuak modu artesanalean sortuko ditugu, bakoitzaren sormena askatasunez jorratuko dugu, eta egunero erabiltzen diren artikulu horiei gure estiloa eta berezitasuna emango diegu.

Era berean, larruzko piezak zaharbertitzen ikasiko dugu, horien mantenua egin eta hondatzea eteteko.

KARTOIGINTZA ETA IDAZMAHAIRAKO OBJEKTUAK

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astehelenak:

16:00-18:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Irakaslea: Eunate Aguirre

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Ikastaro honen bidez kartoiak, paperak, oihalak eta itsasgarria erabiliz pieza ezberdinak sortu ahal izateko ezagutzak jasoko dituzu. Alde batetik, kutxak ebaki eta muntatzen ikasiko duzu, etapiezak bat etor daitezen neurriak kalkulatzeko nahiz horiek muntatzen ere bai. Bestetik, argazki markoak, karpetak, karta-zorroak, paperontziak eta libretak bezalako idazmahairako hainbat objektu sortzeaz gozatuko duzu.

Saioetan piezak diseinatuko dira, ikasleen sormena islatuz eta beren lehentasunak aintzat hartuz.

ARTISAU- KOADERNATZE HASTAPEN IKASTAROA

Irakaslea: Eunate Aguirre

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astearteak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Artisau-koadernatzea osorik eskuz egiten den prozesua da. Prozesu honen bidez aukeratutako orriak (koaderno izenekoak) batzen dira eta ikaslearen nahien arabera emaitza eskuratzen da.

Ikastaro hau koadernatzearen mundura hurbilketa bat da eta **jorsketa mota ezberdinak eta lanketa prozesu ezberdinak** ezagutuko dituzu honen bitartez. Ikastaroa argazki bilduma bat egiten bukatuko da.

LIBURUAK ZAHARBERRITZEA

Irakaslea: Eunate Aguirre

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Ostiralak:

10:00-12:00

Hasi: urriak 2

Amaiera: ekainak 4

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Ikastaro hau konponketaren eta **jatorrizko egoerara bueltatzen** saiatzearen bidez liburuak ahal bezainbeste denbora kontserbatzera bideratuta dago.

Gaitasunen garapena liburu bat koadernatzetik hasiko da. **Koadernatzearen prozesu osoa** ulertzeak garatutako gaitasunak ondorengo liburuen konponketetan aplikatu ahal izatea ahalbidetuko dizu, eta material eta tresna ezberdinak ezagutuko dituzu.

BITXIGINTZA

Irakaslea: Eva Martínez

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Astearteak:

17:00-19:00

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Grinak eta teknikak bat egiten dute artisau-lanen artearekin.

Tailer hau, norberaren sormena garatu eta bere baitako artistari bide emateko gogoz dagoen edonori zuzendua dago.

Tailerra osatzen duten saioetan zehar, bitxi bat diseinatu eta sortzeko prozesua ikasten da, **kobre, letoia eta zilarra** bezalako metalak erabiliz, hala nola, teknika anitz ere. Beti ere, artisautzaren ikuspegi eta praktikatik.

Tailerraren **helburuak**:

Tailerrak parte hartzaileei artisautzari hurbiltzen die, artisautza bera baloratzen ikasteko eta eskuz egindako pieza batek suposatzen duen prozesu nekeza ulertzeko.

Tailerrean parte hartzaile bakoitzaren sormena sustatzen da eta ideia guztiak konpartitzen dira. Elaborazio prozesuan, persona bakoitza konfiantza eskuratzen doa, bere artisautzalanaren emaitza ikusten duenean, bitxigintza pieza bakarra egin duen heinean.

BITXIGINTZA; METALEN OXIDAZIOA LANTZEN

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Astearteak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

Irakaslea: Eva Martínez

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Kolorea, testura eta sormena uztartzen dituen bitxigintza tailerra

Tailer hau bitxigintzarekin aurretiaz harremana izan duten pertsonen zuzendurik dago, arlo honetan gehiago sakondu nahi dutenei, edota beren ideiei forma emateko sormen-prozesu sakonago batean murgildu nahi direnei. Ez da ohiko bitxigintza ikastaro bat: diseinutik sorkuntzara doan ibilbide artistiko oso bat proposatzen du. Ardatz nagusiak kolorea eta materialaren eraldaketa izango dira.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek aukera izango dute bitxi bat hasieratik diseinatu eta sortzeko. Era berean, metalak kolorez nola “margo” daitezkeen ikasiko dute, oxidazio-prozesu naturalak erabiliz. Efektu kromatiko bereziak eta testura aberatsak lortzeko teknikak landuko dira, esperimentazioari eta sormenari ateak irekiz.

Tailerraren helburuak:

- Parte-hartzaileei bitxigintzaren prozesu sortzailea modu praktikoa eta artistikoan bizitzeko aukera eskaintzea.
- Metalaren ezaugarriak sakonago ezagutzea, bereziki oxidazioaren bidez lor daitezkeen kolore eta efektuak.
- Oxidazioen bitartez norberaren estilo pertsonala garatzea, esperimentazioa hizpide.
- Materialaren eta sormenaren arteko harremana lantzea, teknika tradizional eta garaikideak uztartuz.

EBAKETA ETA JANTZIGINTZA

Irakaslea: Gloria Fernández

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astelehenak:

10:00-12:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Ostiralak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 2

Amaiera: ekainak 4

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Guztioi gustatzen zaigu ongi janzteia, baina ez ditugu gustu berberak partekatzen. Ez zaizu inoiz gertatu denda askotara joan zarela eta ez duzula bilatzen ari zinena aurkitu?

Bada, ikastaro honi esker, zuk zeuk egin ahalko dituzu. **Jostea** terapeutikoa eta lasaigarria da. Orduak eman ditzakezu sortzen, eta, ondoren, asebeteta sentitu, ongi egindako lana dela-eta.

Ikastaro honetan, oinarrizko materiala, **ehuna eta abar aukeratzen ikasiko dugu**, bai eta neurriak hartzen, espezializatutako aldizkarietako patrioiak marrazten eta ateratzen ere, **eskuz eta makinaz josten** eta, jakina, zure jantzi propioak sortzen: soinekoak, jakak, berokiak, prakak, haurrentzako saskitxoak, umeentzako arropa, poltsak, diiru-zorroak, musuzapiak, eskualdeko jantzi tipikoak (faralaiak barne), etxeko arropa, honako hauek barne), errezelak.

Ikastaroaren beste ezaugarri garrantzitsu bat eraldatzeko aukera da; ateak zabalduko zaizkio erabiltzen ez diren jantziak birziklatzeari.

EHOZIRI TAILERRA

Irakaslea: María Sol San Román

Lekua eta ordutegiak:

Algortako Kultur Etxea

Astelehenak:

10:00-12:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Romo Kultur Etxea

Astearteak:

16:30-18:30

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Ehoziri-lana osatzen duten puntu ezberdinak eratzekeo hariak korapilatzean datzan artisauehungintza teknika bat da.

Ehoziri mota arruntena **tortxoia** da, baina ikastaroan **errusiarra, dukesa, parpail moderno, teknika berriak, puntu berriak** eta abar ikasiko dituzu.

Ehozirian pentsatzen dugunean amonaren tapiza datorkigu gogora, baina, arte guztietan bezala, diziplinak bilakaera handia izan du eta, gaur egun, lan moderno ederrak egiten dira.

Tailerrera joateko ez da beharrezkoa aurretiazko ezagutzarik edukitzea. Era berean, lana garatzen duzun bitartean, zure eskuzko gaitasunak indartuko dituzu eta estresa arinduko duzu.

COSTUPATCH

Irakaslea: Covadonga Rebolledo

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astelehenak:

17:00-19:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Astearteak:

10:00-12:00

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Orratza, sormena eta talde elkarreragile batean egotea atsegin badituzu, Costupatch da zure jarduera.

Josketa izango da tailer hau zuzenduko duen ildoak, etairakaskuntza ikasle bakoitzaren ezagutza mailara egokituko da.

Lehen sorospenetako josketarekin konponketak egiten ikasiko duzu: oinarritzko puntadak ematen, botoiak josten, prakak laburtzen, kremaierak aldatzen eta abar.

Era berean, patchwork teknikaren bidez proiektu ederrak garatu ahalko dituzu oihalezberdinak konbinatuz ohe-estalkiak, kuxinak, mahai-zapiak, poltsak edo burura datorkizun edozer sortuz.

Gustatzen zaienarekin janzten direnetakoa bazara, prakak egiten, arropa kopiatzen, makinaz josten eta, irudimena garatuz, zure arropa propioa egiten ikasiko duzu.

IDAZKETA SORTZAILEA

Irakaslea: Mónica Crespo

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Astelehenak:

17:00-19:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Astelehenak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Idaztea gogoko duzu? Istorio onak kontatzeko tresna eta teknikak ezagutzea gustatuko litzaizuke?

Idazketa sortzaileko tailerra sorkuntza literariorako gune bat da, lanbidearen baliabideak ikasi eta praktikan jarri ahal izateko eta aurreiritzirik gabe idaztera abiatzeko.

Eskolek zati teoriko bat, idazketa proposamen bat eta irakurketarako materialak dauzkate, beste idazle batzuek beraien testuak nola ebatzi dituzten eta guk erabiliko ditugun tresnak nola erabili dituzten aztertzeko. Irakurketa eta idazketa oso lotuta daude, ezin daiteke bata bestea gabe ulertu; eta, horregatik, idazketa ariketak proposatzeaz gain, hautatutako irakurgaiak eta adibideak proposatuko dira teoria multzo bakoitzerako. Ikasgai-zerrenda talde bakoitzaren beharrianetara egokitzen bada ere, hauek izan daitezke tailerrean ikusiko ditugun gai batzuk:

- Narratzaile motak, narratzailearen ahotsa eta ikuspuntuaren maneia.
- Pertsonaia literarioaren eraketa. Pertsonaia motak.
- Elkarriketa. Ahozketasuna idazkeran. Adierazpen bideak eta erabilerarako arau formalak. Estilo zuzena eta zeharkako-estiloa.
- Barne bakarriketa. Pertsonaien barne-ahotsa. Zeharkako estilo librea.
- Tramaren eraketa. Trama klasikoa eta beste egitura narratibo batzuk.
- Narrazioaren denbora: kontakizunaren denborazketasuna.
- Espazio literarioaren eraketa. Sentipen fisikoak, sentimendutasuna eta ikusgarritasuna.
- Atmosferaren eraikuntza. Tonua eta plastikotasuna.
- Ipuina genero bezala: ipuinaren eta eleberraren arteko ezberdintasunak. Ipuin klasikoaren, modernoaren eta postmodernoaren oinarriko ezaugarriak.
- Literatura eta bizitza. Eskarmentua fikzio bilakatu. Fikzioaren, autofikzioaren eta metafikzioaren mugak.
- Zuzentasuna eta literatura-estiloa: norberaren literatura-testu bat zuzentzen eta berridazten ikasi, afera ortotipografikoak, etab.
- Argitalpena: berrikusketa, originalak nola aurkeztu, edizio-lana, etab.

Idatzi nahi duzu? IDATZI.

EMAKUMEA ETA ZINEA

Irakaslea: Eva Murillo

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Asteazkenak:

17:00-19:00

Hasi: urriak 7

Amaiera: ekainak 9

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Tailer honetan zinegintzaren arloan emakumeari ematen zaion trataeraren inguruan arituko gara, eta historikoki zinema estudioetan emakumeei ezarri zaizkien mugak mahaigaineratuko ditugu.

Horretarako, hainbat film ikusiko ditugu, filmetan emakumeei egotzi ohi zaizkien argumentu eta kontakizunak ezagutzeko helburuarekin.

Halaber, **ikasleak ikusitako filmetatik abiatuz** eztabaida sortu dezaten saiatuko gara, landutako gaiekiko inplikazioa bilatzeko asmoz; sintesirako eta analisirako gaitasunak garatzea izango da horren helburua.

IRAKURKETA KLUBA

Irakaslea: M^a Isabel Pérez Ares

Lekua eta ordutegiak:

Algortako Kultur Etxea

Asteazkenak (bi asterik behin):

19:00-21:00

Hasi: urriak 7

Amaiera: ekainak 2

Romo Kultur Etxea

Ostegunak (bi asterik behin):

10:00-12:00

Hasi: urriak 8

Amaiera: ekainak 3

Prezioa: 50 € (2 pagos de 25 €) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Tailerra literatura unibertsaleko zenbait lanen irakurketan eta ondorengo eztabaidan datza. Ikasgelan hausnarketarako eta eztabaidarako giro atsegin bat sortuko dugu; gozamenerako eta ikasketarako egokia.

Ikasleek hitz egingo dute, iritziak partekatuko ditugu eta idazlearen, idazkeraren edo estiloaren inguruko kontuez jardungo dugu.

Ahal den neurrian, irakasleak zenbait gai mahaigaineratuko ditu, eztabaida bideratuko du eta, irakurketa aberasteko helburuarekin, zenbait galdera botako ditu. Halaber, irakurritako lanekin harremana duten zerrendaz kanpoko idazleak eta liburuak aurkeztuko ditu. Azken finean, **irakurketarako duzun grina partekatzean** datza.

ADIMEN EMOZIONALA ETA OSASUN MENTALA

Irakaslea: Nagore Badiola

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Ostegunak:

16:45-18:45

Hasi: urriak 1

Amaiera: ekainak 3

Ostegunak:

18:45-20:45

Hasi: urriak 1

Amaiera: ekainak 3

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Tailer honen helburua bertaratutakoek beraien **bizi-kalitatea hobetzeko**, beraien burua hobeto ezagutzeko eta, azken finean, **arlo pertsonalean zein harremanetan bizitza asetasun gehiago izateko** behar dituzten **gaitasun emozionalak eskuratu eta garatzea da**.

Saioetan hurrengoa ikasiko duzu:

- Ebidentzia enpirikodun adimen emozionaleko eredu teorikoak proposamen sasizientifiko eta zehaztasun gabeetatik ezberdintzen.
- Ongizate psikologikoaren eta osasun fisikoaren faktore argitzaile bezala gaitasun emozionalek duten garrantzia ulertzen.
- Rafael Bisquerraren ikuspuntu teorikoaren arabera 5 gaitasun emozionalak ezagutzen.
- Adimen emozionalaren baitako gaitasunek bizi-garapenean hobekuntzak sortzeko duten eginkizuna ulertzen.
- Norberaren zein besteen emozioak antzemateko, adierazteko, errazteko, ulertzeko eta erregulatzeke gaitasunak garatzen edo indartzen.
- Psikologia Positiboaren arabera giza-indarguneen autoanalisia egiten.
- Emozioen eta ongizatearen neurozientzia ezagutzen.
- Mindfulness tekniken ikasketa eta praktika.
- Nork bere burua zauritzeko eta boikoteatzeko dinamikak eta moduak aurreikusten.

Ikasitakoaren entrenamendua erraztuko duten eta bizipen positiboak izaten lagunduko duten talde dinamikak ahalbidetzen.

ARGAZKIGINTZA: HASTAPENA

Irakaslea: Juan Félix Ruiz

Lekua eta ordutegiak:

Algortako Kultur Etxea

Astelehenak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Romo Kultur Etxea

Asteazkenak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 7

Amaiera: ekainak 9

[Praktikak
asteburuetan](#)

Prezioa: 180 € (90 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Argazkilaritzan hasteko taldea non argazkilaritzako funtsezko kontzeptu eta teknikak irakatsiko diren: **kameraren erabilera, konposizioa, argia, formak, fokalak, etabar.**

Argazkilaritzako oinarrizko ezagutzak ikasi eta/edo sendotzeko aukera bikaina, beraz.

Tailerrean zehar argazkilaritza ikuspegi desberdinetatik ulertzen ahaleginduko gara: komunikazio tresna bezala eta jarduera artistiko bezala, alegia.

- Tailerrean parte hartzeko, ezinbestekoa da reflex kamera digitala edo eskuz aldatu daitezkeen ezarpenak dituen kamera izatea.
- Saio praktikoak asteburuetan zehar izango dira. Data konketuak ikastaroaren hasieran zehaztuko dira. Saio horietara joatea gomendagarria den arren, bertaratzeko zailtasunik duenak, praktika horren deskribapen laburra jasotzeko aukera izango du, bere kabuz eta gehien komeni zaion ordutegian gauzatu dezan.

ZUR LANKETA

Irakaslea: Amaia Conde

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Astelehenak:

09:30-11:45

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Astelehenak:

12:00-14:15

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** gaztelera

16 urtetik gora

Ikastaro honetan zura lantzeko teknika irakatsiko da, hasierako mailakako ikaskuntza eskainiz. Partehartzaileek tailu geometrikoa eta erliebezkoa egiten ikasiko dute, bai eta betaren alde lan egiten, erremintak identifikatzen eta zorrozteko gai izaten ere.

Oinarrizko ariketen ostean, ikasleek beren diseinuak aukeratu ahal izango dituzte.

Aldez aurretik zura lantzen dakiten pertsonei beren lanetan lagunduko zaie.

Ikastaroan zehar, ikasleriak bere sormena askatu eta egurrak ematen dituen aukerak ezagutzeko aukera izango du.

DANTZA GARAIDEA ETA MUGIMENDUA

Irakaslea: Leire Ondarroa

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astelehenak:

10:00-11:30

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

Ostiralak:

11:00-12:30

Hasi: urriak 2

Amaiera: ekainak 4

Ostiralak:

18:00-19:30

Hasi: urriak 2

Amaiera: ekainak 4

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Bakoitzak bere gorputza ulertzeari eta ezagutzeari ekingo diogu dantza eta mugimendu teknika desberdinak erabiliz.

Garrantzitsuena ez da dantzatzen jakitea, gorputzaren mugimendua ezagutzea baizik.

ZERAMIKAREN HASTAPENAK

Irakasleria: KONECTarts

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astearteak:

18:30-20:30

Hasi: urriak 6

Amaiera: ekainak 15

BERRIA

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Zeramikaren hastapenak kurtsoak buztinarekin eta haren adierazpen ugariekin lehen kontaktua izateko balio du. Ikastaroa hasiberrientzako oinarritzko ezagutza- eta trebetasun-oinarri bat sortzeko gehien erabiltzen diren eraikuntza-teknikak ikasteko diseinatuta dago, bai eta esperientzia handiagoa dutenei teknika horiek garatzeko eta hobetzeko aukera eskaintzeko ere.

Saioak proiektuetan oinarrituta egingo dira, hainbat teknika erabiliz, hala nola atximurrak, txurroak, plantxak eraikitzea, teknika mistoak eta estutzeko moldeak. Talde gisa, adibide historiko eta garaikideei buruz hausnartuko dugu, inspiratzeko eta ideia propioak hartzeko. Ikasle bakoitza animatuko dugu bere intereserako motibagarriak eta lorgarriak diren proiektuak egitera.

Engobeak, azpi-estalkiak eta testurak erabiliko ditugu dekorazioa lantzeko, ezagutzak aragotzeko eta ukitu bereziak eta pertsonalak gehitzeko.

Erresistenteak eta iraunkorrak diren kalitate handiko materialak erabiliko ditugu.

Mesedez, ekarri amantala bat edo zikindu ahal den arropa.

SENDABELARRAK ETA OSASUNA

Irakaslea: Mentxu Amunategui

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Asteazkenak:

17:00-19:00

Hasi: urriak 7

Amaiera: ekainak 9

BERRIA

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Ikastaro honetan, gure inguruko landareak ezagutzeaz gain, landareen erabilera tradizionalari eta egungo fitoterapiaren eremuari erreparatuko diegu.

Teoria eta praktika sustatuz.

Landareak fisikoki ezagutzeaz gain, haien propietateak, ezaugarriak, dosifikazioak eta kontraindikazioak ikusiko ditugu.

Nola batu, lehortu eta kontserbatu erabiltzeko.

Nola erabili urarekin; infusioak, freskagarriak, saldak, xarabeak edo tonikoak egiteko.

Olio eta koipeetan ere jarriko dugu arreta. Olioen prozedura desberdin landuz, horren harira ukenduak, pomadak eta kremak sortuko ditugu.

Landareen oinarritzko prozedurak ezagutu ondoren, estraktuen munduari ere helduko diogu, eta estraktua modu desberdinean landuko dugu.

**METODOLOGIKOKI OSO PRAKTIKOA, DINAMIKOA, ATSEGINA ETA HURBILA
IZANGO DA!!**

SENDABELARRAK ETA ELIKADURA GURE SUKALDEETAN

Lekua eta ordutegiak:

**Algortako
Kultur Etxea**

Asteazkenak:

19:00-21:00

Hasi: urriak 7

Amaiera: ekainak 9

Irakaslea: Mentxu Amunategui

BERRIA

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | **Hizkuntza:** euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Basoko landareak eta landare usaintsuak giza elikaduraren parte izan dira betidanik. Gaur egun sukaldaritzan duen erabilerak gastronomia modernoak bultzatutako joera dirudien arren, gure sukaldaritza-tradizioaren parte dira. Perrexila protagonista duen saltsa berdea edo menda hainbat kulturatako errezetetan erabiltzea adibide batzuk baino ez dira.

Zaporea, aroma eta kolorea emateaz gain, landare horietako askok nutrizio-balio handia eta osasunerako propietate onuragarriak dituzte. Gure elikaduran txertatzeak aukera ematen digu sukaldaritza anitzagoa, osasungarriagoa eta ingurunearekin konektatuagoa gozatzeko.

Tailer honetan gure inguruko landareak sukaldaritza-helburuekin ezagutzen eta erabiltzen ikasiko dugu, betiere erabilera arduratsu eta segurutik. Sasoiko eta hurbileko elikagaiekin lan egingo dugu, elikadura osasungarria lurraren ziklo naturalak errespetatuz hasten dela ulertuta.

Barazkiak, lekaleak, zerealak, koipe osasungarriak eta landare basati ugari erabiliko ditugu errezeta errazak, sortzaileak eta zaporez beteak egiteko. Osagai horiek eguneroko sukaldaritzan nola integratu ikasiko dugu, ezagutza tradizionalak berreskuratuz eta gaur egunera egokituz.

Lantegian zehar hainbat prestakin egingo ditugu, besteak beste:

- Bermineralizazio- eta arazte-saldak.
- Edari naturalak.
- Entsaladak basoko landareekin.
- Hartzituak eta beste kontserbazio-teknika batzuk.
- Landare-pateak.
- Sormenezko errezetak ortigarekin, hala nola kroketak gazta urdinarekin, hostoreak, kremak edo baita postreak ere.
- Azukrerik gabeko marmeladak.
- Gozogintza osasungarria.

Sukaldaritzako ikastaro bat baino gehiago, tailer hau gure inguruan hazten diren landareak berraurkitu eta gure elikaduran modu erraz, kontziente eta osasungarrian txertatzeko gonbidapena da. Errezeta bakoitzak helburu bat izango du: organismoa elikatzea, osasuna zaintzea eta inguratzen gaituen ondare naturalari eta gastronomikoari balioa ematea.

LETTERING SORTZAILEA

Irakasleria: Itziar Martínez Llaguno

Lekua eta ordutegiak:

Romo Kultur Etxea

Astelehenak:

19:00-20:30

Hasi: urriak 5

Amaiera: ekainak 21

BERRIA

Prezioa: 95 € (47,5 €-ko bi ordainketa) | Hizkuntza: euskara

16 urtetik gora

BALDINTZA:
euskara jakitea

Hitzak arte bihurtu. Sortzeko, deskonektatzeko eta inspirazioa aurkitzeko gunea.

Ezagutu letrak marrazteko artea, aurretiazko esperientziarik izan ala ez, sormen-prozesuaz gozatzeko ikastaro honetan. Kaligrafia modernoko, konposizioko, koloreko eta diseinuko teknikak ikasiko dituzu, zure estilo propioa garatzen duzun bitartean eta euskarri ezberdinetan proiektu sortzaileak egiten dituzun bitartean. Eduki teknikoaz harago, ikastaro hau zuretzako denbora hartzeko, sormena pizteko eta trazu bakoitzean lasaitasuna, adierazpena eta ongizatea aurkitzeko aukera ere bada. Letteringaren mundu erakargarrian hasi nahi dutenentzat zein bertan sakontzen jarraitu nahi dutenentzat irekita dagoen ikastaroa.

TAILERREN EGUTEGI OROKORRA 2026-2027

Urria							Azaroa							Abendua							
As	At	Az	Os	Or	La	Ig	As	At	Az	Os	Or	La	Ig	As	At	Az	Os	Or	La	Ig	
			1	2	3	4							1			1	2	3	4	5	6
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	
26	27	28	29	30	31		23 30	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				
Urtarrila							Otsaila							Martxoa							
As	At	Az	Os	Or	La	Ig	As	At	Az	Os	Or	La	Ig	As	At	Az	Os	Or	La	Ig	
				1	2	3	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	7	
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	8	9	10	11	12	13	14	
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	15	16	17	18	19	20	21	
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	22	23	24	25	26	27	28	
25	26	27	28	29	30	31								29	30	31					
Apirila							Maiatza							Ekaina							
As	At	Az	Os	Or	La	Ig	As	At	Az	Os	Or	La	Ig	As	At	Az	Os	Or	La	Ig	
			1	2	3	4							1	2		1	2	3	4	5	6
5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	
12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	
19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	
26	27	28	29	30			24 31	25	26	27	28	29	30	28	29	30					

- IKASTAROEN
HASIERA ETA
AMAIERA
- OPORRAK
(ez dago klaserik)
- JAI-EGUNAK
(ez dago klaserik)
- ZUBIA

Ikastaroen hasiera- eta amaiera-datak orokorrak dira. Ikastaro bakoitzak berezko egutegia du eta, edonola ere, irakasleek behin betiko egutegia jakinaraziko dute ikasturtearen hasieran.

GETXO⁺
KULTURA



Getxo
bizi ezazu

Informazioa

- Romo Kultur Etxean
944 660 022
- Muxikebarriko informazio bulegoan
944 660 123
- Kultur Etxearen webgunean
www.getxo-kultura.eus